



Batxilergoko Sari Berezia 2015/2016 Premio Extraordinario de Bachillerato

EZ SINATU ETA EZ IZENA JARRI / NO FIRMES NI PONGAS TU NOMBRE

IDENTIFIKAZIO-KODEA / CÓDIGO IDENTIFICATIVO	KALIFIKAZIOA / CALIFICACIÓN
---	-----------------------------

BIOLOGIA

BIOLOGÍA

Balioespena: irizpide orokorrak

Honako hauek hartuko dira aintzat: erantzunak zuzenak izatea, azalpenaren argitasuna eta kalitatea, testuaren egituraketa, lexikoaren aberastasuna eta zuzentasun linguistikoa.

Criterios generales de de valoración

Se valorará la corrección de las respuestas, la claridad y calidad de la exposición, la estructuración, la propiedad del vocabulario y la corrección lingüística.

Balioespena: irizpide espezifikoak

1. Erantzunak positiboki balioetsiko dira baldin eta ondo egituratuta badaude, lexiko espezifikoak erabiltzen bada eta koherentzia zientifikoa agertzen badute.
2. Erantzunak positiboki balioetsiko dira baldin eta gaiak elkarri lotuta eta gertaera biosanitarioak egoki interpretatuta ematen badira, betiere ikasgaitik eta komunikabideetatik jasotako ezagutzak baliatuz.
3. Positiboki balioetsiko da grafikoak eta diagramak erabiltzea, eta ideia garrantzitsuenak indartzeko edo argitzeko haiek azpimarratzea. Gainera, aintzat hartuko da erantzunetan erabilitako adierazpen zehatza eta argia.

Criterios específicos de valoración

1. Se valorarán positivamente las respuestas bien estructuradas con el empleo del vocabulario específico y coherencia científica.
2. Se valorarán las respuestas que supongan la interconexión entre temas diferentes, así como la interpretación de acontecimientos biosanitarios a la luz de los conocimientos adquiridos en la materia y mediante los medios de comunicación.
3. Se valorarán positivamente la utilización de gráficos y diagramas, y el subrayado como medio para resaltar, aclarar o matizar las ideas importantes. Además, se tendrá en cuenta, en la realización de los ejercicios y cuestiones, la utilización de una expresión escrita correcta y clara.

Proba egiteko zehaztapenak

Probako galderak errazenetik zailenera daude ordenatuta.

- Lehenengo galderak 1 puntu balio du. Zitologia arloari erreferentzia egiten dion galdera orokorra da.
- Bigarren galderak 2 puntu balio du, eta ekosistemetan gertatzen diren energia- eta materia-fluxuei dagokie.
- Hirugarren galderak 3 puntu balio du. Bai zelula prokariotoetan bai eta eukariotoetan ere garatzen den prozesu biologiko orokor batekin dauka lotura.
- Laugarren galderak 4 puntu balio du. Mikroorganismoen aurkako defentsan oinarrituta dagoen prozesu bati dagokio.



Especificaciones para la realización del ejercicio

La prueba está diseñada con preguntas de dificultad creciente.

- La 1ª pregunta se valorará sobre 1 punto, y se refiere a una cuestión sobre Citología.
- La 2ª pregunta se valorará sobre 2 puntos, y se refiere al flujo de materia y energía en los ecosistemas.
- La 3ª pregunta, con valor de 3 puntos, se refiere a un proceso biológico general que se desarrolla tanto en células procariotas como eucariotas.
- La 4ª pregunta valorada sobre 4 puntos, se refiere a una cuestión relacionada con nuestra defensa frente a los microorganismos.

1. ariketa (puntu 1)

1^{er} ejercicio (1 punto)



Irudietan, bi motatako zelulei (osteoklastoa eta espermatozoidea) dagokien organulu zelular bat adierazten da. Azaldu zein den organulua eta zer funtzio betetzen duen aipatutako zeluletan. (1 puntu)

En las figuras aparece un orgánulo celular asociado a dos tipos de células (el osteoclasto y un espermatozoide). ¿Cuál es ese orgánulo y qué función desempeña en las células indicadas? (1 punto)

2. ariketa (2 puntu)

2^o ejercicio (2 puntos)



a. Nitrogenoaren metabolismoari dagokionez, zein da bakterio nitrifikanteen eta zumeen arteko harremana? (1 puntu)


b. Egin eskema bat honako organismo mota hauek erlazionatzeko: fotosintetikoak, fotoorganotrofoak, kimiosintetikoak, fotolitotrofoak, kimiorganotrofoak... (1 puntu)

a. ¿Qué relación existe entre los sauces y las bacterias nitrificantes en lo que al metabolismo del nitrógeno se refiere? (1 punto)

b. Haz un esquema en el que se pueda relacionar los siguientes tipos de organismos: fotosintéticos, fotoorganotrofos, quimiosintéticos, fotolitotrofos, quimioorganotrofos... (1 punto)

3. ariketa (3 puntu)

3^{er} ejercicio (3 puntos)




- a. Hartzidura egiterakoan, zergatik erabiltzen dute jogurteko bakterio laktikoek azido laktikoa azken elektroien hartzaile gisa, eta ez glukolisian sortutako azido pirubikoa? Arrazoitu erantzuna. (1 puntu)
- b. *Saccharomyces* generoko legamiak, zelula eukariotoak izanda eta beraz mitokondrioak edukita, zergatik lortzen dute hartziduraren bidez energia? (1 puntu)
- c. Ba al dago alderik jogurteko bakterioek eta gure muskulu-zelulek egiten duten hartzidura laktikoen artean? (1 puntu)

- a. ¿Por qué las bacterias lácticas del yogurt al realizar la fermentación tienen como receptor final de electrones el ácido láctico y no el ácido pirúvico del proceso glucolítico? Razona la respuesta. (1 punto)
- b. ¿Por qué levaduras del género *Saccharomyces*, siendo células eucariotas y por lo tanto poseedoras de mitocondrias, obtienen la energía por medios fermentativos? (1 punto)
- c. ¿Existe alguna diferencia entre la fermentación láctica de las bacterias del yogurt y la vía fermentativa de nuestras células musculares? (1 punto)

4. ariketa (4 puntu)


Grafiko honetan, zauri baten orbaintze- eta sendatze-prozesuak adierazten dira sinbolikoki.



- a/ Erantzun orbaintze-prozesuari dagozkion galdera hauei:
- Zein motatako erantzun immunitariotan sartuko zenuke orbaintze-prozesua?
 - Sistema immunitarioko zein zelulak eta bitartekariak hartzen dute parte normalean orbaintze-prozesuan?
- b/ Horrez gain, adierazi laburki zaurien kontrolean eta orbaintze-prozesuan garatzen diren urratsak edo ekintzak.

4^o ejercicio (4 puntos)

En este gráfico se representan simbólicamente los procesos de la cicatrización y curación de una herida.



- a/ Responde las siguientes preguntas sobre el mecanismo de cicatrización:
- ¿En qué tipo de respuesta inmunitaria se puede encuadrar la cicatrización?
 - ¿Cuáles son los mediadores y las células del sistema inmunitario que intervienen habitualmente en este proceso?
- b/ Señala resumidamente los pasos o acciones en el control y cicatrización de las heridas.